a) Pertsona fisikoen kasuan, hauei erosi edo eskualdatu bazaie higiezina: ezkontideari; zergadunari ahaidetasunaren bidez baturiko edozein pertsonari, dela zuzeneko lerroan edo albokoan, odol bidez edo ezkontza bidez, bigarren graduraino, hura barne; erakunde bati, zeinarekiko sortzen baita, zergadunarekin edo aurreko pertsona horietarik edozeinekin, Merkataritza Kodearen 42. artikuluak xedaturiko gorabeheraren bat, berdin diolarik non dagoen bizilekua eta nahitaez egin behar diren urteko kontu finkatuak.

b) Erakundeen kasuan, hauei erosi edo eskualdatu bazaie higiezina: pertsona eta erakunde bati, zeinarekiko sortzen baita Merkataritza Kodearen 42. artikuluak xedaturiko gorabeheraren bat, berdin diolarik non dagoen bizilekua eta nahitaez egin behar diren urteko kontu finkatuak; edo pertsona horren ezkontideari edo hari ahaidetasun bidez baturiko edozein pertsonari, dela zuzeneko lerroan edo albokoan, odol bidez edo ezkontza bidez, bigarren graduraino, hura barne".

AZKEN XEDAPENAK

Lehena. Indarrean jartzea.

ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean xedapen orokor hau, bere artikuluen testuan berariaz xedatutako ondorioak gorabehera.

Bigarrena. Gaitzea.

Arabako Foru Aldundiari baimena eman zaio xedapen orokor hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Hirugarrena. Biltzar Nagusietara bidaltzea.

Zerga premiazko araugintzako dekretu hau Arabako Biltzar Nagusiei aurkeztuko zaie, berretsi edo ezeztatu dezaten, indarrean dagoen araudian ezarritakoari jarraituz.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko maiatzaren 29a.– Diputatu nagusia, JAVIER DE ANDRÉS GUERRA.– Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko Foru diputatua, JOSÉ ZURITA LAGUNA.– Ogasun Zuzendaria, JUAN IGNACIO MARTÍNEZ ALONSO.

a) Tratándose de personas físicas, el inmueble se hubiera adquirido o transmitido a su cónyuge, a cualquier persona unida al contribuyente por parentesco, en línea recta o colateral, por consanguinidad o afinidad, hasta el segundo grado incluido, a una entidad respecto de la que se produzca, con el contribuyente o con cualquiera de las personas anteriormente citadas, alguna de las circunstancias establecidas en el artículo 42 del Código de Comercio, con independencia de la residencia y de la obligación de formular cuentas anuales consolidadas.

b) Tratándose de entidades, el inmueble se hubiera adquirido o transmitido a una persona o entidad respecto de la que se produzca alguna de las circunstancias establecidas en el artículo 42 del Código de Comercio, con independencia de la residencia y de la obligación de formular cuentas anuales consolidadas, o al cónyuge de la persona anteriormente indicada o a cualquier persona unida a ésta por parentesco, en línea recta o colateral, por consanguinidad o afinidad, hasta el segundo grado incluido."

DISPOSICIONES FINALES

Primera. Entrada en vigor.

La presente disposición general entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOTHA, sin perjuicio de los efectos expresos previstos en su articulado.

Segunda. Habilitación.

Se autoriza a la Diputación Foral de Álava para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y aplicación de la presente disposición general.

Tercera. Remisión a Juntas Generales.

Este Decreto Normativo de Urgencia Fiscal se someterá a las Juntas Generales de Álava, para su convalidación o revocación, de conformidad con lo establecido en la normativa vigente.

Vitoria-Gasteiz, a 29 de mayo de 2012.– Diputado General, JAVIER DE ANDRÉS GUERRA.– Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JOSÉ ZURITA LAGUNA.– Director de Hacienda, JUAN IGNACIO MARTÍNEZ ALONSO.

*Diputatuen Kontseiluaren Foru Dekretuak*

## GIZARTE ZERBITZUEN SAILA

**3214**

**29/2012 FORU DEKRETUA, maiatzaren 22ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, onartu egiten dira Gizarte Zerbitzuen Sailak eta Gizarte Ongizaterako bere Foru Erakunde Autonomoak (GOFE) ezintasun egoera aitortuta duten pertsonei banakako laguntzak ematea arautzen duten oinarri orokorrak.**

Diputatu nagusiaren uztailaren 19ko 162/2011 Foru Dekretuaren bidez Aldundiko sailak eta haien eskumenak eta egitekoak ezarri ziren. Dekretu horren arabera Gizarte Zerbitzuen Sailaren eskumenekoak dira arlo hauek: adinekoak, ezintasuna, haurrak eta familia, oinarrizko gizarte zerbitzuak, prestazio ekonomikoak, berdintasunerako politika, inmigrazio politika, lankidetza, eta antolamendu juridikoan ezarritako gainerako guztiak.

Gaur egun Gizarte Zerbitzuen Saila deritzonaren egitura organikoa eta funtzionala onartzen duen Diputatuen Kontseiluaren maiatzaren 20ko 44/2008 Foru Dekretuko 1. artikuluan Sailaren eginkizunak eta eskumenak ezarri dira. Gainera, 2. artikuluan Sailaren antolamendua ezarri da eta bertan Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea (GOFE) Gizarte Zerbitzuen Sailari atxikita dago.

Foru Aldundiaren gizarte zerbitzuen arloko eskumen batzuk Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen bitartez kudeatzen dira, esaterako pertsona ezinduak ahalik gehien integratzeko lanaren ingurukoak, besteak beste.

*Decretos Forales del Consejo de Diputados*

## DEPARTAMENTO SERVICIOS SOCIALES

**3214**

**DECRETO FORAL 29/2012, del Consejo de Diputados de 22 de mayo, que aprueba las bases generales reguladoras de la concesión por el Departamento de Servicios Sociales y su Organismo Autónomo Instituto Foral de Bienestar Social (IFBS) de las ayudas individuales dirigidas a personas que tengan reconocida su situación de discapacidad.**

Según lo dispuesto en el Decreto Foral del Diputado General 162/2011, de 19 de julio, por el que se determinan los Departamentos de la Diputación y sus funciones y competencias, corresponden al Departamento de Servicios Sociales las funciones y competencias en materia de: Personas Mayores, Discapacidad, Infancia y Familia, Servicios Sociales de Base, Prestaciones Económicas, Política para la Igualdad, Política de Inmigración, Cooperación, y las demás que le señale el ordenamiento jurídico.

El artículo 1 del Decreto Foral 44/2008, del Consejo de Diputados, de 20 de mayo, por el que se aprueba la estructura orgánica y funcional del actualmente denominado Departamento de Servicios Sociales, establece las funciones y competencias del mismo. Asimismo, en su Artículo 2, se establece la organización departamental, adscribiendo al Departamento de Servicios Sociales el Organismo Autónomo Instituto Foral de Bienestar Social (IFBS).

Entre las competencias atribuidas a la Diputación Foral en materia de Servicios Sociales, y gestionadas a través del Organismo Autónomo Instituto Foral de Bienestar Social, se encuentran aquellas que se refieren a la promoción de la máxima integración de las personas con discapacidad.

Jarduteko ahalmena mugatuta edo murriztuta duten pertsonen autonomia eta gizarteratzea sustatu behar dira eta halako muga eta murrizketei aurrea hartu behar zaie ezintasuna gainditzeko berariaz diseinatu eta sortutako laguntza produktuen bidez. Hori dela eta, Diputatuen Kontseiluak 17/1998 Foru Dekretuaren bitartez Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak pertsona ezinduei banako laguntzei buruzko araudia onartu zuen. Araudi horretan aipatutako laguntzak emateko irizpideak eta prozedura ezarri ziren eta deialdi publikoak egiteko oinarriak finkatu ziren.

Araudi hura aspaldi onartu zela eta, Gizarte Zerbitzuen Sailak eta berari atxikitako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak uste dute on litzatekeela laguntza horiek emateko prozedura arautzeko oinarri orokor berriak ezartzen dituen dekretu berria onartzea, hain zuzen ere testua ezintasunaren inguruan erabat zabaldu diren termino aldaketetara moldatzeko eta otsailaren 1eko 8/2011 Foru Dekretuarekin bateratzeko (horren bidez Gizarte Zerbitzuen Sailak eta berari atxikita dagoen Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak dirulaguntzak norgehiagoka emateko prozedura arautzen duten oinarri orokorrak onartu dira). Aldaketa honek badauzka beste helburu batzuk ere: laguntzen aplikazioa erraztea eta urteen joanean laguntzak emateko izapideetan azaldu diren arazoak konpontzea.

Horregatik, Gizarte Zerbitzuen Saileko diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

XEDATU DUT

Lehenengoa. Pertsona ezinduei banako laguntzak norgehiagokaren bidez emateko prozedura arautzen duten oinarri orokorrak onartu dira. Prozedura foru dekretu honen eranskinean zehaztu da.

Bigarrena. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera jarriko da indarrean.

Hirugarrena. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko maiatzaren 22a.– Diputatu nagusia, JAVIER DE ANDRÉS GUERRA.– Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatua, MARTA ALAÑA ALONSO.

**ERANSKINA**

GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEAK EZINTASUNA ONARTUTA DUTEN PERTSONEI BANAKO LAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA ARAUTZEN DUTEN OINARRI OROKORRAK

I. KAPITULUA.- ARAU OROKORRAK

**1. artikulua.- Xedea eta aplikazio eremua.**

Araudi honen bidez araututako laguntzen xedeak dira onuradunen bizi kalitatea hobetzea, ezintasunak pertsona horiei sortzen dizkien beharrak asetzea, eta beraien autonomia, garapen pertsonala eta gizarteratzea sustatzea. Horretarako hauetako bat emango zaie: prestazio ekonomikoa ezintasuna dela eta ekintzaren bat egiteko, laguntza produktu bat eskuratzeko edo zerbitzu bat jasotzeko egin behar dituzten gastuak konpentsatzeko (denak edo zati bat) edo laguntza produktu baten erabileraren lagapena.

Laguntza ildoak urteko deialdietan gauzatuko dira; deialdiak ALHAOn argitaratuko dira. Ekitaldiko bakoitzeko deialdian dekretu honetan ezarritako arautegia zehaztuko da.

Urte bakoitzeko deialdian aurreko ekitaldiko deialdia amaitu denetik deialdian bertan ezarritako epealdia hasi arte eskuratu edo egin diren laguntzak soilik finantzatu ahal izango dira.

Urtero onartzen den deialdian alderdi hauek zehaztuko dira:

a) Aurrekontuko zer kredituri egotziko zaizkion laguntzak eta guztira gehienez zenbat eman daitekeen (baliagarri dauden kredituen arabera) edo, bestela, zenbatekoa uste den izango dela dirulaguntzaren zenbatekoa.

Como consecuencia de la necesidad de prevenir y promocionar la autonomía personal e integrar socialmente a personas con limitaciones o restricciones en su actividad mediante la aplicación de productos de apoyo, pensados y diseñados de forma específica para paliar el déficit provocado por su situación de discapacidad, mediante Decreto Foral 17/1998, se procedió por el Consejo de Diputados a aprobar la Normativa Reguladora de la Concesión por el Instituto Foral de Bienestar Social de Ayudas Individuales dirigidas a personas afectadas por discapacidades, en la cual se establecían los criterios y el procedimiento para la concesión de estas ayudas, sentándose las bases para su posterior convocatoria pública.

Transcurrido un tiempo desde la aprobación de la anterior Normativa Reguladora, el Departamento de Servicios Sociales y su Organismo Autónomo Instituto Foral de Bienestar Social, creen conveniente aprobar un nuevo Decreto de bases reguladoras generales aplicable a esta finalidad que se adapte en su redacción a los cambios terminológicos que se han ido consolidando en relación con la discapacidad y armonizarla con el Decreto Foral 8/2011, de 1 de febrero, que aprueba las bases generales reguladoras de la concesión de subvenciones en régimen de concurrencia competitiva del Departamento de Servicios Sociales y su Organismo Autónomo Instituto Foral de Bienestar Social (IFBS). Asimismo esta modificación pretende hacer más operativa su aplicación y dar solución a los diversos problemas que se han puesto de manifiesto a lo largo de los años en la tramitación de las mismas.

En su virtud y a propuesta de la Diputada de Servicios Sociales y previa deliberación del Consejo de Diputados en sesión celebrada en el día de hoy,

DISPONGO

Primero. Aprobar las bases reguladoras generales aplicables a las Ayudas Individuales dirigidas a personas afectadas por discapacidad que se otorguen en régimen de concurrencia competitiva en los términos que figuran en documento anexo al presente Decreto Foral.

Segundo. El presente Decreto Foral entrará en vigor el día siguiente de su publicación en el BOTHA.

Tercero. Ordenar su publicación en el BOTHA.

Vitoria-Gasteiz, a 22 de mayo de 2012.– Diputado General, JAVIER DE ANDRÉS GUERRA.– Diputada de Servicios Sociales, MARTA ALAÑA ALONSO.

**ANEXO**

BASES GENERALES REGULADORAS DE LA CONCESIÓN DE AYUDAS INDIVIDUALES DEL INSTITUTO FORAL DE BIENESTAR SOCIAL DE ÁLAVA, DIRIGIDAS A PERSONAS QUE TENGAN RECONOCIDA LA SITUACIÓN DE DISCAPACIDAD

CAPÍTULO I.- NORMAS GENERALES

**Artículo 1.- Objeto y ámbito de aplicación.**

Constituye el objeto de las ayudas reguladas en la presente Normativa, mejorar la calidad de vida de las personas a quienes se dirigen, atender a las necesidades surgidas de su situación de discapacidad, favorecer su autonomía, desarrollo personal e integración social, mediante la cesión en régimen de uso o concesión de una prestación económica que compense total o parcialmente los gastos que aquéllas tengan que efectuar en razón de su discapacidad, para realizar una acción, adquirir un producto de apoyo o recibir un servicio que les sea necesario.

Las líneas de intervención se materializarán en Convocatorias anuales que serán publicadas en el BOTHA. Estas Convocatorias concretarán para cada ejercicio la regulación establecida en este Decreto.

Únicamente podrán ser objeto de financiación dentro de cada convocatoria anual, aquellas ayudas que hayan sido adquiridas o realizadas en el periodo transcurrido entre la fecha de finalización de la Convocatoria del ejercicio inmediatamente anterior y el plazo que se establezca en la convocatoria anual correspondiente.

La convocatoria que anualmente se apruebe, contendrá:

a) Créditos presupuestarios a los que se imputarán las ayudas y cuantía total máxima de la convocatoria dentro de los créditos disponibles o, en su defecto, cuantía estimada de la subvención.

b) Laguntzak nola emango diren: norgehiagoka.

c) Laguntza jasotzeko ezartzen diren betekizun bereziak eta zer egin behar den betekizunok betetzen direla frogatzeko.

d) Zein organok duen eskumena prozedura agintzeko, izapidetzeko eta ebazteko.

e) Zenbat ebazpen emango diren.

f) Kasu batzuetan, eskaerak baloratzeko ezartzen diren irizpide bereziak. Irizpideok ezin dituzte arriskuan jarri objektibotasuna, berdintasuna, gardentasuna, publizitatea eta bereizkeriarik eza laguntzak emateko prozeduran, eta beraien haztapenean kontuan edukiko da laguntzarekin egingo dena egokia denez haren xedea lortzeko.

g) Banako lehenengo ebazpen bakoitzean emango den laguntzaren ehunekoa.

**2. artikulua.- Laguntzen araubidea.**

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak pertsona ezinduei (ezintasun fisikoa, psikikoa zein zentzumenezkoa) banako laguntzak emateko prozeduran araudi honetan eta berau aplikatzeko eta garatzeko ematen diren xedapenetan ezarritakoa aplikatuko da.

**3. artikulua.- Urteko deialdi publikoa.**

Urtero ekitaldi bakoitzeko dirulaguntzen deialdi publikoa onartuko da. Deialdian, araudi honetan ezarritako guztia ez ezik, Arabako Dirulaguntzei eta Transferentziei buruzko otsailaren 7ko 3/1997 Foru Arauan ezarritakoa zehaztuko da (testu honetan bildutakoa ez beste guztia).

Urtero egingo denez, deialdi irekia izango da: deialdia indarrean dagoen aldian hainbat ebazpen emango dira segidan.

**4. artikulua.- Printzipio orokorrak.**

Araudi honen itzalpean hemendik aurrerako deialdietan ematen diren laguntzak kudeatzeko printzipio hauek hartuko dira aintzat:

- Publizitatea, gardentasuna, norgehiagoka, objektibitatea, berdintasuna eta bereizkeriarik eza.
- Eraginkortasuna ezarritako helburuak betetzeko.
- Efizientzia Gizarte Zerbitzuen Sailaren baliabideak esleitu eta erabiltzeko Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen bidez.

**5. artikulua.- Izaera.**

1.- Foru dekretu honen bidez arautUtako laguntzak bi motatakoak dira: onuradunari behar duen tresna edo elementu baten erabilera lagatzea edo aldizkakoa ez den banako prestazio ekonomikoa behar den produktua erosteko, erabilera lagatzerik ez dagoenean.

Behar den tresna edo elementua lagatzeko modurik egonez gero, horixe izango da laguntza: erabilera lagatzea. Honen ildotik, eskatzaile batek uko egiten badio baliagarri egonik teknikarien ustez egokia den laguntza tekniko baten lagapenari, ezin izango du jaso deialdi bereko laguntza ekonomikorik.

2.- Dekretu honetan arautzen diren laguntza produktu batzuk berreskuragarriak dira eta beste batzuk berreskuraezinak.

a) Berreskuragarriak dira hainbat pertsonak behin eta berriro erabil ditzaketenak eta leku batetik bestera eramatean garraio kostuak baizik sortzen ez dituztenak.

b) Berreskuraezinak dira pertsona erabiltzaile bakar baten onurarako direnak, edo aparteko kasuetan hainbat pertsonaren onurarako aldi berean, eta horren ondorioz eskualdatu ezin direnak. Halaber, berreskuraezinak dira etxebizitzak egokitzeko obra zibilak eta laguntza produktu berreskuragarriak erabiltzeko egin beharreko obrak.

**6. artikulua.- Laguntza produktu berreskuragarriak itzultzea.**

1. Ematen den laguntza eskatzaileak behar duen produktuaren erabileraren lagapena denean, sinatzen den lagapen agirian nahitaez

b) Expresión de que la concesión se efectúa mediante un régimen de concurrencia competitiva.

c) Requisitos específicos que en su caso se establezcan para poder acceder a las ayudas y forma de acreditarlos.

d) Indicación de los órganos competentes para la ordenación, instrucción y resolución del procedimiento.

e) Número de resoluciones sucesivas que deberán recaer.

f) Criterios específicos de valoración de la solicitud que pudieran establecerse en su caso. Estos criterios deberán garantizar la objetividad, igualdad, transparencia, publicidad y no discriminación en la concesión de las ayudas, y en su ponderación se atenderá a la adecuación de la actuación proyectada al logro de la finalidad de la misma.

g) Porcentaje de ayuda que se concederá en cada una de las primeras resoluciones individuales que se dicten al efecto.

**Artículo 2.- Régimen de las ayudas.**

La concesión por el Instituto Foral de Bienestar Social de ayudas individuales dirigidas a personas afectadas por discapacidades físicas, psíquicas o sensoriales, se regirá por lo dispuesto en la presente normativa y las disposiciones que se dicten para su aplicación y desarrollo.

**Artículo 3.- Convocatoria Pública anual.**

Anualmente se procederá a aprobar la Convocatoria Pública de subvenciones correspondiente a cada ejercicio. Dicha Convocatoria contendrá, además de las previsiones que se establecen en esta Normativa, los extremos previstos en la Norma Foral 3/1997, de 7 de febrero de subvenciones y transferencias del Territorio Histórico de Álava siempre que no hayan sido recogidos en el presente texto.

Dado el carácter anual de la convocatoria, ésta se dota de la naturaleza de convocatoria abierta a los únicos efectos de llevar a cabo varias resoluciones sucesivas a lo largo del periodo que abarca la convocatoria.

**Artículo 4.- Principios generales.**

Las ayudas que se concedan al amparo de la presente normativa y de sus correspondientes convocatorias se gestionarán en base a los siguientes principios:

- Publicidad, transparencia, concurrencia, objetividad, igualdad y no discriminación.
- Eficacia en el cumplimiento de los objetivos fijados.
- Eficiencia en la asignación y utilización de los recursos del Departamento de Servicios Sociales a través de su Organismo Autónomo, Instituto Foral de Bienestar Social.

**Artículo 5.- Naturaleza.**

1.- Las ayudas a que se refiere el presente Decreto Foral consistirán en la cesión en régimen de uso de los útiles o elementos que se precisen, o bien en prestaciones económicas no periódicas que se otorgarán con carácter individual y finalista, y en concepto de subvención, a fin de proceder a la adquisición del producto cuando no fuera posible su cesión.

En caso de que se disponga de útiles o elementos para su cesión, ésta será la forma principal de conceder las ayudas. De esta forma, la negativa o rechazo a una ayuda técnica que se encuentre disponible para su cesión en régimen de uso y que se considere idónea y adecuada por el personal técnico, implicará necesariamente la imposibilidad de percibir una ayuda económica por este concepto al amparo de la correspondiente convocatoria.

2.- Los productos de apoyo regulados por este Decreto pueden tener el carácter de recuperables o de no recuperables.

a) Se consideran recuperables aquellos que pueden ser reutilizados por sucesivas personas y que pueden ser trasladadas de lugar sin más costes que los de transporte.

b) Se consideran no recuperables los productos de apoyo que por sus características son intransferibles y benefician, por tanto, a una única persona usuaria o excepcionalmente a varias de forma simultánea. Las obras civiles para adaptación de domicilios, así como las obras necesarias para el uso de productos de apoyo recuperables serán asimismo consideradas como no recuperables.

**Artículo 6.- Reversión de los productos de apoyo recuperables.**

1. En aquellos supuestos en que la ayuda precisa se conceda mediante la cesión del uso de un producto de apoyo de naturaleza

ezarri behar da produktua erabiltzeko aldia amaitzen denean onuradunak itzuli egin behar duela.

2. Ondoko kasuan ere aurreko idatz zatian eskatzen dena egin behar da: eskuratutako laguntza produktu berreskuragarriaren kostu osoa estaltzen duen dirulaguntza ematen denean.

3. Dirulaguntzaren zenbatekoa produktuaren benetako kostuaren ehuneko 50 eta 100 bitartekoa bada, Foru Administrazioak ondoko eragiketaren emaitzako konpentsazio ekonomikoa aplikatu ahal izango du itzultzeko eskatzen duenean: produktuaren benetako kostuaren eta hura finantzatzeko jasotako dirulaguntza publikoen guztirako zenbatekoaren arteko diferentziari (onuradunaren ekarpen garbia) urtean ehuneko 20 kendu.

**7. artikulua.- Laguntza produktuko berreskuragarriak edo erabilera lagata dutenak mantentzea eta horiek erabiltzeko araubidea.**

1.- Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak behar dena egingo du laguntza produktu berreskuragarriak erabiltzeko moduan emateko onuradunei. Produktua ohi bezala zein gaizki erabiltzean gertatzen diren matxurak konpontzeko gastuak eta aparatuak erabiltzeko moduan mantentzeko ohiko gastuak (bateria edo gurpil berriak eta erabiliaren erabiliaz narriatzen diren gainerako elementu guztiak) erabiltzailearen kontura izango dira. Lagapenaren aldia amaitzen denean edo itzultzeko garaia iristen denean, erabiltzaileak administrazio lagatzailearen esku jarri beharko du produktua.

2.- Laguntza produktu berreskuragarriak ezin dira atera behin betiko Arabako Lurralde Historikotik. Atera behar izanez gero, pertsona erabiltzaileak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen berariazko baimena jaso beharko du Lurraldetik irten baino lehen. Laguntza produktuak jasotzen diren herri berean itzuli behar dira.

**8. artikulua.- Baldintza orokorrak.**

1.- Dirulaguntzaren onuraduna izango da funts publikoak eskuratzen dituena, eta horrek dirulaguntza eskuratzeko arrazoi moduan aurkeztu den jarduera egin behar du edo dirulaguntza eskuratzeko behar den legezko egoeran egon behar du.

Artikulu honetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten adingabeentzako laguntzen onuradunak hauexek izango dira: gurasoak edota tutoreak edo adingabeen babesaren arloko eskumena daukan erakunde publikoaren aurrean formalizatutako tutoretza edo harrera dela bide adingabearen ardura hartu duten pertsonak, berarekin bizi badira. Pertsona batek baino gehiagok jaso ahal badute laguntza, eskaera lehenengo aurkeztu duena soilik onartuko da onuraduntzat.

2.- Laguntza hauek jaso ahal izateko araudi honetan edo urte bakoitzeko deialdian laguntza bakoitzerako ezartzen diren berariazko betekizunak ez ezik ondoko baldintza orokor hauek ere bete behar dira:

a) Eskatzailearen egoitza Arabako Lurralde Historikoan egon behar da eta eskaera aurkeztu baino lehen gutxienez urtebetean egon behar izan da erroldatuta bertako udalerri batean.

b) Laguntzaren onura jasoko duenak gutxienez ehuneko 33ko ezintasuna eduki behar du (laguntzaren bidez arindu nahi den ezintasuna). Hau ez zaie aplikatuko 3 urtetik beherako adingabeei, baldin eta teknikarien ustez heltzeko garapenean hondar ezintasuna ekar lezakeen atzerapena badute.

c) Ezin dira jaso zerbitzu berak Arabako Foru Aldundiaren eta beste erakunde publiko zein pribatu batzuen programetan (beraienak, itunduak zein diruz lagunduak).

d) Eskatzaileak 65 urte baino gehiago badauzka, adin horretara iritsi baino lehenagotik eduki behar du onartuta b) letran ezarritako ezintasuna.

e) Laguntza produktua etxebizitza egokitzeko behar bada, eskatzailea gutxienez etxebizitzaren ehuneko 50aren jabea izan behar da; honetatik salbuetsita daude: adingabeak; epai bidez ezgaitzat jo diren hemezortzi urtetik gorako pertsonak; ehuneko 33ko ezintasuna edo

recuperable, el documento de cesión que al efecto se suscriba incluirá necesariamente el compromiso de devolución del producto una vez terminado el periodo de uso necesario.

2. El mismo compromiso que el establecido en el apartado anterior, se exigirá en los casos en que la subvención que se conceda cubra la totalidad del coste del producto de apoyo adquirido, y se trate de un producto de apoyo recuperable.

3. En los supuestos en que la ayuda que se conceda se encuentre en el tramo comprendido entre el 50 por ciento y el 100 por ciento del coste real del producto de apoyo, la Administración Foral podrá proceder a exigir su reversión, aplicando la compensación económica resultante de minorar un 20 por ciento anual a la diferencia entre el coste real del producto y el importe total de subvenciones públicas recibidas para su financiación (aportación neta de la persona usuaria).

**Artículo 7.- Mantenimiento y régimen de uso de los productos de apoyo recuperables o en cesión de uso.**

1.- El Instituto Foral de Bienestar Social se ocupará de la entrega en buen estado de uso de los productos de apoyo recuperables. Los gastos de reparación de averías de funcionamiento que se pudieran ocasionar tanto por utilización habitual como por mal uso del producto, o los normales de mantenimiento de los aparatos (sustitución de baterías, de ruedas o de otros elementos que pueden sufrir desgaste por su uso, etc.) serán de cuenta de la persona usuaria, quien deberá ponerlos a disposición de la Administración cedente en correcto estado de utilización, cuando finalice el plazo de cesión o cuando proceda la reversión.

2.- Los productos de apoyo recuperables, no podrán trasladarse de forma permanente fuera del Territorio Histórico de Álava. En caso de necesidad, la persona usuaria deberá contar con la autorización previa y expresa del Instituto Foral de Bienestar Social. En cualquier caso la devolución del mismo se realizará en la misma localidad en que se efectuó la entrega.

**Artículo 8.- Requisitos generales.**

1.- Tendrá la condición de persona beneficiaria de la subvención, la destinataria de los fondos públicos quien deberá realizar la actividad que fundamentó el otorgamiento de la subvención o encontrarse en la situación que legitime su concesión.

En el caso de ayudas dirigidas a menores de edad que cumplan los requisitos establecidos en este artículo, serán beneficiarias de las mismas el padre, madre y/o tutores o personas encargadas por razón de tutela o acogimiento formalizado ante la Entidad Pública competente, siempre que convivan con el menor. Cuando mas de una persona pueda tener derecho a la ayuda, sólo se reconocerá a quien la haya presentado en primer lugar.

2.- Podrán ser beneficiarias de estas ayudas, las personas que además de los requisitos específicos exigidos para la concesión de cada ayuda concreta que se establezcan en esta normativa o en la convocatoria anual, reúnan los siguientes requisitos de carácter general:

a) Tener su residencia efectiva en el Territorio Histórico de Álava y estar empadronada en cualquiera de sus municipios con una antelación mínima de un año consecutivo e inmediatamente anterior a la fecha de solicitud.

b) Que el destinatario de la ayuda, presente un grado de discapacidad igual o superior al 33 por ciento en aquella de la que se intenta paliar sus efectos mediante la ayuda que se solicita, salvo menores de 3 años que, a criterio técnico presenten un retraso en el desarrollo madurativo que pueda originar una disminución residual.

c) No poder beneficiarse de los mismos servicios en programas propios, concertados o subvencionados por la Diputación Foral de Álava, ni por otros Organismos públicos o privados.

d) Si la persona solicitante tiene mas de 65 años, que le hubiera sido reconocida la condición de discapacidad fijada en la letra b) con anterioridad al cumplimiento de la citada edad.

e) En el supuesto de adquisición de productos de apoyo para adaptación de vivienda, la persona beneficiaria debe ser propietaria de, al menos, el 50 por ciento de la misma salvo: menores, personas mayores de dieciocho años judicialmente incapacitadas, o, personas

handiagoa duten pertsonak, baldin eta gurasoetako batekin bizi badira, edo legezko ordezkaritza hartu duen senide batekin. Ezinbestekoa da etxebizitza eskatzailearen ohiko etxebizitza izatea eta bertan edukitzea bere elkarbizitza unitatearen egoitza.

f) Eskatzailearen zerga egoitza Arabako Lurralde Historikoan egon behar da eta hark egunean eduki behar ditu bere zerga betebeharrak.

3.- Ezin dira izan onuradun eskatzen den xede bererako Gizarte Zerbitzuen Sailaren edo Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen konturako prestazio edo zerbitzuren bat jasotzen dutenak.

**9. artikulua.- Elkarbizitza unitatea.**

1.- Araudi honetan ezarritakoaren ondorioetarako elkarbizitza unitatetzat hartuko dira:

• Legez bananduta ez dauden ezkontideen unitateak (bai eta izatezko bikoteak ere) eta beraien seme-alaba adingabeak edota epai bidez ezgaituriko adin nagusikoak, luzaturiko edo birgaituriko guraso ahalari lotuta daudenak. Unitatean ez dira sartzen gurasoen baimenarekin beren kabuz bizi diren seme-alaba adingabeak.

• Senar-emazteak legez bananduta badaude edo ez badago ezkontza lokarririk ez izatezko bikoterik, edo epaileak berariaz emandako ebazpena egonez gero, familia unitatean hauexek daude: gurasoetako bat eta berarekin bizi diren seme-alaba guztiak, aurreko baldintza guztiak betetzen badituzte. Hala denean, beste gurasoa ez da izango familia unitateko kidea.

2.- Inor ezin da izan aldi berean bi familia unitatetako kide.

3.- Foru dekretu honetan ezarritako ondorio guztietarako, elkarbizitza unitateko kidetzat hartuko dira beti prestazioaren onuradunarekin bizi diren seme-alabak, nahiz eta adinaren betekizuna ez bete, baldin eta gurasoen PFEZen aitorpenean ondorengoengatiko kenkaria aplikatzeko eskubidea ematen badute.

**10. artikulua.- Errenta edo sarreren eta ondarearen konputua.**

1.- Pertsona onuraduna izateko eta, beraz, laguntza jasotzeko edo, bestela, kontzeptu honengatik onartu beharreko ehunekoa finkatzeko elkarbizitza unitatearen ahalmen ekonomikoa hartuko da kontuan. Urte bakoitzeko deialdian onuradun izateko ahalmen horretan aplikatuko diren mugak ezarriko dira.

2.- Elkarbizitza unitatearen errenta edo sarrera konputagarriak urtean zehar kideen lanak eta kapitalak sortzen dituzten etekinak eta eskubideak izango dira, eta jasotzen dituzten gainerako guztiak ere bai.

Etekinak eta eskubideak baloratzeko Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak ematen duen informazioa hartuko da erreferentziatzat. Honen ildotik, deialdiaren aurreko ekitaldian Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitorpena aurkeztu duten pertsonen kasuan ondokoen batura izango da sarreren zenbatekoa: lanaren etekin osoak; kapital higiezinaren etekin osoak; kapital higigarriaren etekin osoak; ondare irabazi garbiak; lanbide, nekazaritza eta abeltzaintzako jardueren etekin garbia; egotzitako lanaren errenta salbuetsiak, guztira.

Ezintasun handiagatiko pentsioa edo antzekoa jasotzen bada, hirugarren pertsona bati laguntzeko ehuneko 50eko osagarria ez da sartuko elkarbizitza unitatearen sarreren guztirako zenbatekoan.

Horren ildotik, horrelako pentsioren bat jasotzen dutenek horren frogagiria aurkeztu behar dute salbuetsitako zenbatekoa kalkulatzeko eta gero laguntza horren arabera konputatzeko.

3.- Pertsona onuradunak ez badauka PFEZen aitorpena aurkeztu beharrik, 2. idatz zatian xehatutako kontzeptuetan egotzitako sarrerak hartuko dira kontuan.

que teniendo una discapacidad igual o superior al 33 por ciento convivan de forma permanente con su padre, madre, o con hermanos o hermanas que ostenten su representación legal. En cualquier caso dicha vivienda debe constituir su vivienda habitual y ser la sede de su unidad de convivencia.

f) Tener su domicilio fiscal en el Territorio Histórico de Álava y estar al corriente de sus obligaciones fiscales.

3.- No podrán tener la consideración de personas beneficiarias quienes sean perceptoras de prestaciones o servicios a cargo del Presupuesto del Departamento de Servicios Sociales o de su Organismo autónomo Instituto Foral de Bienestar Social, cuya finalidad coincida con el objeto de la ayuda solicitada.

**Artículo 9.- Unidad Convivencial.**

1.- A efectos de lo dispuesto en la presente normativa, se considerará unidad de convivencia las siguientes:

• La integrada por los cónyuges no separados legalmente, así como los miembros de las parejas de hecho y, si los hubiera los hijos menores y/o los hijos mayores de edad incapacitados judicialmente sujetos a patria potestad prorrogada o rehabilitada. Se exceptúan los hijos menores de edad que vivan independientemente de sus padres con el consentimiento de éstos.

• Asimismo, en los casos de separación legal o cuando no existiera vínculo matrimonial o pareja de hecho, así como en los casos de existencia de resolución judicial al efecto, será unidad familiar la formada por un progenitor y todos los hijos que convivan con él y reúnan los requisitos a que se refiere el apartado anterior. En estos casos, en el supuesto de existir otro progenitor, éste no formará parte de dicha unidad familiar.

2.- Nadie puede formar parte de dos unidades familiares al mismo tiempo.

3.- En todo caso se considerarán, a todos los efectos que se establecen en este Decrerto Foral, incluidos en la unidad de convivencia los hijos e hijas que conviviendo con el beneficiario de la prestación y no reuniendo el requisitos de edad, pudiera dar lugar a deducción por descendientes en la declaración del IRPF de sus padres.

**Artículo 10.- Computo de rentas o ingresos y de patrimonio.**

1.- Para ostentar la condición de persona beneficiaria y, consiguientemente poder ser destinataria de las ayudas o fijar en su caso el porcentaje a reconocer por este concepto, se tendrá en consideración los límites económicos que anualmente se fijen en las correspondientes convocatorias para la unidad convivencial.

2.- Se considerarán rentas o ingresos computables los rendimientos y derechos de que disponga anualmente la unidad convivencial, derivados tanto del trabajo como del capital, así como cualesquiera otros que se pudieran percibir.

A los efectos de valoración de rendimientos o derechos se tomará como referencia la información facilitada por el Departamento Foral de Hacienda, Finanzas y Presupuestos de la Diputación Foral de Álava. En este sentido para las personas que hayan presentado declaración a efectos del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas en el ejercicio precedente a cada convocatoria anual, se tomarán como ingresos la suma de los siguientes conceptos: Rendimientos íntegros del trabajo, rendimientos íntegros del capital inmobiliario, importe integro de los rendimientos de capital mobiliario, ganancias patrimoniales netas, rendimiento neto de actividades profesionales, empresariales, agrícolas y ganaderas y el total de rentas de trabajo exentas imputadas.

Para el establecimiento de los ingresos totales de la unidad convivencial, en el caso de pensiones de gran invalidez o asimilables no se considerará el complemento del 50 por ciento que tiene carácter finalista para la asistencia de una tercera persona.

En este sentido cuando se percibieran este tipo de pensiones, deberá presentarse justificante de las mismas a fin de determinar la cantidad exenta para el cómputo de esta ayuda.

3.- Cuando la persona beneficiaria no tenga obligación de presentar declaración de IRPF, se tomarán los ingresos imputados de los conceptos detallados en el apartado 2.

4.- Ohiko etxebizitza gorabehera, benetako etekinik sortzen ez duen ondasun higiezin baten jabe direnei haren katastro balioaren ehuneko 3a egotziko zaie bidezko zenbatekoan. Aurreko puntuetan aipatzen ez diren ondasunen eta eskubideen etekinak ere egotziko dira.

II. KAPITULUA.- LAGUNTZEN SAILKAPENA

**11. artikulua.- Laguntza motak.**

Banako laguntzak eman ahal izango dira ezinduek arlo hauetan behar dituzten ekintza, produktu edo zerbitzuen kostua ordaintzeko (kostu osoa edo zati bat):

a) Erabilerraztasuna etxebizitzan

– Arkitektura oztopoak kentzea:

– Etxebizitzaren egokitzapen funtzionala:

b) Laguntza produktuak

Araudi honen helburuetarako hauexek izango dira laguntza produktuak: mendetasunean dauden pertsonen eta ezintasunen bat duten pertsonen akatsei, jarduera murrizpenei eta parte hartzeko mugei aurrea hartzeko edo horiek guztiak konpentsatzeko, kontrolatzeko, arintzeko edo neutralizatzeko berariaz fabrikatutako edo merkatuan baliagarri dauden eragingailuak, ekipoak, tresnak, teknologiak eta softwareak, bestea beste.

Halaber, nazioarteko ISO9999 Arauan (Ezinduentzako laguntza produktuak) aipatzen diren produktuak erosteko ere eman ahal izango dira dirulaguntzak:

– Zaintza eta babes pertsonalean laguntzeko produktuak.

– Nor bere kontura mugitzeko produktuak.

– Etxeko lanak egiten laguntzeko produktuak.

– Etxerako altzariak eta egokitzapenak.

– Komunikatzen eta informazioa jasotzen laguntzeko produktuak.

– Gauzak, eragingailuak eta beste erabiltzen laguntzeko produktuak.

Aldiz, araudi honen ondorioetarako ez dira laguntza produktuak: laguntza produktuak instalatzeko erabiltzen diren gauzak; araudi honetan banako sailkapena duten laguntza produktuen konbinazioak; sendagaiak; laguntza produktu ortoprotesikoak eta osasuneko profesionalek soilik erabiltzen dituzten tresnak; teknikoak ez diren soluzioak: laguntza pertsonala, txakur gidariak edo ezpainen irakurketa; inplante eragingailuak; eskatzailearen ezintasuna dela eta egokitasuna frogatuta ez duten produktuak eta GNS 10ean ageri ez diren gaitzetarako direnak.

c) Laguntza espezializatua

Laguntza hauen xedea 0 - 3 urte bitartekoen arreta goiztiarrak eragiten dituen gastuak (denak edo zati bat) ordaintzea da, edo Aldundiaren eskumeneko kasuetan arreta ematea zerbitzu espezializatuetan, hain zuzen ere txosten teknikoan arreta eman behar dela finkatu eta zerbitzu publikoetan horretarako aukerarik ez dagoen kasuetan.

d) Laguntza bereziak eta laguntza osagarriak.

Aparteko kasu batzuetan aurreko artikuluetan ezartzen eta tipifikatzen ez diren ekintzak edo laguntza bereziak ere finantzatu ahal izango dira, hain zuzen ere teknikariek aldeko txostena eman ondoren eskatzailearen arretarako, sustapenerako eta gizarteratze prozesurako onuragarritzat jotzen direnak.

Gainera, urteko deialdian ezarritako kopurua gainditzen denean, laguntza osagarriak eman ahal izango dira laguntza produktu berreskuragarriak erabiltzeko ezinbesteko gertatzen diren egokitzapenak finantzatzeko.

III. KAPITULUA.- PROZEDURA ARAUAK

**12. artikulua.- Eskaerak aurkeztea.**

1.- Araudi honen xede diren laguntzak emateko prozedura interesdunak edo haren guraso batek edo beraren legezko ordezkaritza, tutoretza edo zaintza daukanak eskatuta hasiko da.

2.- Eskaerak aurkezteko epealdia urteko dirulaguntzen deialdian finkatuko da.

4.- A quienes, con independencia de su vivienda habitual, sean propietarios de bienes inmuebles que no produzcan rendimientos efectivos, se les imputará una cantidad equivalente al 3 por ciento del valor catastral de los bienes, en el importe que les corresponda. También se imputarán los rendimientos procedentes de cualquier otro bien o derecho no reflejados anteriormente, o que sean susceptibles de producirlos.

CAPÍTULO II.- CLASIFICACIÓN DE LAS AYUDAS

**Artículo 11.- Tipos de ayudas.**

Podrán concederse ayudas individuales para sufragar el costo total o parcial de las acciones, productos o servicios que precisen las personas con discapacidad en los siguientes campos:

a) Accesibilidad en la vivienda

– Supresión de barreras arquitectónicas:

– Adaptación funcional de la vivienda:

b) Productos de Apoyo

Para los objetivos de esta normativa, se entenderá por producto de apoyo cualquier producto (incluyendo dispositivos, equipo, instrumentos, tecnología y software) fabricado especialmente o disponible en el mercado, para prevenir, compensar, controlar, mitigar o neutralizar deficiencias, limitaciones en la actividad y restricciones en la participación de personas en situación de dependencia o personas con discapacidad.

También podrá subvencionarse la adquisición de alguno o algunos de los siguientes productos contemplados en la Norma internacional ISO9999 - Productos de apoyo para personas con discapacidad:

– Productos de apoyo para el cuidado y la protección personal,

– Productos de apoyo para la movilidad personal,

– Productos de apoyo para las actividades domésticas,

– Mobiliario y adaptaciones para viviendas,

– Productos de apoyo para la comunicación y la información,

– Productos de apoyo para la manipulación de objetos y dispositivos,..

A los efectos de esta normativa, no se consideran productos de apoyo: los artículos utilizados para su instalación; las soluciones obtenidas por combinación de productos de apoyo que están clasificados individualmente en esta normativa; los medicamentos; los productos de apoyo material ortoprotésico e instrumentos utilizados exclusivamente por profesionales de la salud; las soluciones no técnicas, como asistencia personal, perros-guía o lectura labial; los dispositivos implantados; ni aquellos otros cuya idoneidad no venga avalada como consecuencia de la discapacidad presentada por la persona o que responda a patologías no contempladas en el CIE 10.

c) Asistencia especializada

Son ayudas que tienen por objeto contribuir a la cobertura total o parcial de aquellos gastos de atención temprana para personas de 0 a 3 años, o para hacer posible la atención en servicios especializados que, siendo de competencia foral en su prestación y siendo procedente su concesión según el informe técnico, lo requieran y no puedan ser atendidas en el servicio público existente.

d) Ayudas excepcionales y complementarias.

Con carácter excepcional podrán financiarse acciones o ayudas que por sus especiales y extraordinarias características no hayan sido previstas y tipificadas en los artículos anteriores siempre que, previo dictamen técnico favorable se considere de interés para la atención de la persona beneficiaria y para su promoción e integración social.

Asimismo, podrán financiarse, en concepto de ayudas complementarias, aquellas adaptaciones que resulten imprescindibles para la utilización de las ayudas recuperables y que superen la cantidad que se establezca en cada convocatoria anual.

CAPÍTULO III.- NORMAS PROCEDIMENTALES

**Artículo 12.- Presentación de las solicitudes.**

1.- El procedimiento para la concesión de las ayudas objeto de la presente normativa se iniciará a solicitud de la persona interesada o, en su caso, de su padre o madre, o quien ostente la representación legal, tutoría o guarda.

2.- El plazo de presentación de solicitudes se fijará anualmente en la correspondiente convocatoria de subvenciones que al efecto se dicte.

3.- Dekretu honetan arautzen diren laguntzen eskaerak egiteko eredua leku hauetan eskura daiteke: Ezinduen Balorazio eta Orientabide Zentroan (Manuel Iradier, 27; Vitoria - Gasteiz), Arabako landa eremuko udalen oinarrizko gizarte zerbitzuen bulegoetan eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen bulegoetan (Diputazio kalea, 13 - etxabea). Betetakoan eskaerak leku horietan berorietan aurkez daitezke, eta gainera Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legeko 38. artikuluan ezarritako moduan ere bai (4/99 Legean finkatutako testua).

Halaber, erakunde honek modu telematikoan emango die eskaera eredua eskatzen duten pertsona guztiei.

4.- Eskaeran nahitaez zehaztu behar da jakinarazpenetarako egoitza. Erakunde eskatzailearen ardura izango da datuetan gertatzen diren aldaketa guztien berri ematea Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari, batik bat eskatzailearen egoitzaren eta banku kontuko datuetan gertatzen diren aldaketen berri.

5.- Eskaerarekin batera agiri hauek aurkeztu behar dira:

a) Laguntzaren onuradunaren familia unitatearen ondasunen zinpeko aitorpena.

b) Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen baimena datu pertsonalak biltzeko edota emateko, hain zuzen ere gizarte prestazioak, laguntzak eta zerbitzuak lortzeko, jasotzeko eta mantentzeko legez ezarritakoa betetzeko behar diren datu pertsonalak.

c) Eskatzen den laguntza aplikatuko den ekintzaren, laguntza teknikoaren edo zerbitzuaren kostua 2.000 eurokoa edo gehiagokoa bada, bi aurrekontu edo proformako faktura; hori baino gutxiago bada, nahikoa izango da aurrekontu edo faktura bat.

Laguntza produktuaren zenbatekoa 2.000 euro edo hortik gorakoa izan arren, hornitzaile bat baino ez badago, ez dira aurkeztu behar bi aurrekontu edo proformako faktura.

Gastua eta ordainketa deialdian ezarritako epealdiaren barruan egiten badira baina eskaera aurkeztu baino lehen, nahikoa izango da jatorrizko faktura.

d) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 31.3 artikuluan ezarritakoa betetzeko, diruz laguntzeko den gastua obra baten burutzapenak eragingo duena bada eta zenbatekoa 30.000,00 euro baino gehiago bada, onuradunak gutxienez hiru hornitzaileri eskatu behar die eskaintza zerbitzua egiteko edo ondasuna emateko konpromisoa kontratatu baino lehen. Salbuespena: diruz laguntzeko diren gastuen ezaugarri bereziak direla eta merkatuan ez egotea behar den zerbitzua edo ondasuna egiten edo hornitzen duten hiru erakunde.

e) Eskatzailearen ustez laguntza ekonomikoaren beharra frogatzeko behar diren txostenak. Txosten ekonomikoak sare publikokoak izan behar dira.

f) Laguntza jasotzeko baldintza orokorrak eta bereziak betetzen direla frogatzen duten agiriak.

g) Berreskuragarritzat jotako elementu baten erabilera lagatzen bada edo haren kostu osoa ordaintzeko dirulaguntza ematen bada, hura itzultzeko konpromisoa.

6.- Laguntza bat eskuratzeko eskaera aurkezteak berekin dakar oinarri hauetan eta kasuan kasuko deialdiko oinarri berezietan ezarritakoa formalki eta berariaz onartzea.

7.- Pertsona interesdunak baimena eman ondoren, eta beharrezkoa izanez gero, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak erroldaren betekizuna betetzen den argituko du eta ondo frogatuta ez dauden datu guztiak ofizioz egiaztatuko ditu bere kabuz edo oinarrizko gizarte zerbitzu egokiaren bidez.

8.- Espedientea betetakoan araudi honetan eta deialdian ezarritako betekizunak eta baldintzak betetzen direnez egiaztatuko da.

3. Las solicitudes para concurrir a las ayudas que se regulan en este Decreto se formalizarán en el correspondiente modelo de instancia normalizada que se facilitará en el Centro de Valoración y Orientación de Personas con Discapacidad (c/ Manuel Iradier, 27. Vitoria - Gasteiz), en las oficinas de los Servicios Sociales de Base dependientes de los Ayuntamientos de la zona rural alavesa, y en las oficinas del Instituto Foral de Bienestar Social en Vitoria-Gasteiz (c/ Diputación, 13 - bajo). Además de en los lugares señalados, las solicitudes también podrán presentarse en la forma establecida en el artículo 38 de la ley 30/1992, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, en redacción dada por ley 4/99.

Asimismo, desde esta Institución podrán facilitarse dichos modelos de forma telemática, a todas aquellas personas que así lo requieran.

4.- En esta solicitud se hará constar expresamente el domicilio que se señale a efectos de notificaciones. Será cometido de la persona solicitante informar expresamente al Instituto Foral de Bienestar Social de cualquier variación de datos que haya podido producirse, especialmente en lo referente al domicilio de quien solicita y a los datos de su cuenta bancaria.

5.- La solicitud deberá acompañarse necesariamente por la siguiente documentación:

a) Declaración jurada de bienes de la unidad familiar de convivencia de la que forme parte la persona beneficiaria de la ayuda.

b) Autorización al Instituto Foral de Bienestar Social para recabar, utilizar y/o transmitir datos de carácter personal, en relación con los requisitos legalmente establecidos para obtener, percibir y mantener las prestaciones, ayudas y servicios sociales.

c) Dos presupuestos o facturas proforma del coste de la acción, ayuda técnica o servicio para el que se solicita la ayuda cuando su costo sea igual o superior a los 2.000 euros, bastando con uno cuando no alcance esta cantidad.

Quedan exceptuados de esta obligación, la adquisición de productos de apoyo que, siendo de un importe igual o superior a los 2.000 euros, sean de tal especificidad que no exista un proveedor alternativo.

Cuando el gasto y su pago se efectúen dentro del plazo establecido en cada convocatoria, pero con anterioridad a la fecha de entrega de la solicitud, bastará con presentar la factura original.

d) En cumplimiento de lo establecido en el artículo 31.3 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, cuando el importe del gasto subvencionable supere la cuantía de 30.000,00 euros en el supuesto de coste de ejecución de obra la persona beneficiaria deberá solicitar como mínimo tres ofertas de diferentes entidades proveedoras, con carácter previo a la contratación del compromiso para la prestación del servicio o la entrega del bien, salvo que por las especiales características de los gastos subvencionables no exista en el mercado suficiente número de entidades que suministren o presten el servicio.

e) Informes que, a juicio de la persona solicitante, sean relevantes para determinar la necesidad de la ayuda. En el caso que se aporten informes médicos, estos deberán ser emitidos por la red pública.

f) Justificantes correspondientes al cumplimiento de los requisitos generales y específicos exigidos para la concesión de la ayuda.

g) Compromiso de devolución de los útiles o elementos para cuya adquisición se hubiera reconocido la ayuda en aquellos elementos que hayan sido cedidos en uso o sufragados en su totalidad, siempre que éstos hayan sido calificados como recuperables.

6.- La presentación de solicitudes para optar a las ayudas comporta la aceptación expresa y formal de lo establecido en estas bases y en las específicas de la correspondiente convocatoria.

7.- El Instituto Foral, previa autorización de la persona interesada y en caso de que fuera necesario, recabará de oficio, por sí mismo o a través del Servicio Social de Base correspondiente, información relativa al cumplimiento de los requisitos de empadronamiento y de aquellos otros datos que no se hubieran acreditado suficientemente.

8.- Una vez cumplimentado el expediente, se procederá a la valoración sobre el cumplimiento de los requisitos y condiciones establecidas en la presente Normativa y en la convocatoria pública anual.

**13. artikulua.- Deialdiak hartzen dituen gastuak.**

Diruz laguntzen diren proiektu edo jarduketaren gastuetan zenbatekoan aurreko urteko deialdiaren epealdia amaitu ondoko egunetik aribideko urteko deialdiko eskaerak aurkezteko epealdia amaitu arte egindako gastuak sartuko dira.

**14. artikulua.- Okerrak zuzentzea.**

1.- Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ezarritako epealdian eta behar bezala aurkeztutako eskaerak aztertuko ditu laguntzak emateko eskatzen diren betekizunak eta baldintzak betetzen direnez ebazteko. Eskatzaile batek horiek guztiak betetzen ez baditu, hamar eguneko epealdia edukiko du beharrezko agiriak eta datuak aurkezteko, eta ohartaraziko zaio aurkeztu ezean eskaeran atzera egin duela pentsatuko dela, ebazpena eman ondoren, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 71. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz (4/1999 Legeak finkatutako testua).

2.- Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak eskatutako dirulaguntzei buruzko txostenak eskatu diezazkieke nahi duen erakunde guztiei. Horrez gainera administrazio espedientea osatzeko eta eskaeretan ezarritako datuak egiaztatzeko beharrezko datuak, agiriak eta argibideak ere eskatu diezazkieke.

**15. artikulua.- Irizpen teknikoa.**

Laguntza jasotzeko ezarritako baldintza orokor eta berezi guztiak betetzen dituzten eskaeren gaineko txostena egingo dute Ezinduen Arloko Zuzendariordetza Teknikoak izendatutako teknikariek bidezko ebazpena eman aurretik. Laguntzaren onuradun izateko ezinbestekoa da txostena aldekoa izatea. Txostenean ondoak argituko dira:

a) Laguntzaren onuraduna izan daitekeen pertsonaren ezintasuna: mota eta gradua.

b) Laguntzaren beharra, egokitasuna eta bidezkotasuna, ezintasuna oinarritzat hartuta.

c) Laguntza ezintasunerako egokia denez. Teknikariek uste badute ezarritako laguntza teknikoa ez dela egokia eskatzaileak behar duenerako, zer behar duen zehaztu behar dute.

d) Laguntza ukatzen bada, zergatik ukatzen den zehaztu behar da.

**16. artikulua.- Deialdiaren instrukzioa eta ebazpena.**

1.- Deialdian ezarritako epealdi bakoitzean aurkeztutako eskaerei buruzko txosten teknikoak aztertu ondoren deialdian adierazten den Ezinduen Arloko Zuzendariordetza Teknikoko kide anitzeko organoak ebazpena proposatuko du. Proposamenean bi gauza zehaztu behar dira: onartzen diren dirulaguntzen zenbatekoak eta onartzen ez diren dirulaguntzak zergatik ukatu diren.

2.- Aginduzko txosten teknikoak egin ondoren eta aurreko puntuan aipatzen den ebazpen proposamena ikusirik, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko organo eskudunak eskatzen diren laguntzak eman eta ukatuko dituzten ebazpenak emango ditu.

Ebazpen bakoitzean ebatzitakoaren arrazoiak azaldu behar dira eta ondokoak argitu:

- Nortzuk diren dirulaguntza jasoko duten onuradunak, bakoitzaren zenbatekoa zehaztuta; laguntza jasoko ez dutenei dagokienez, batetik azalduko da zeintzuk ukatu diren eta bestetik zeintzuek ez duten jasoko laguntza eskaeran atzera egin dutelako, eskubideari uko egin diotelako, proiektua ezin burutu dutelako edo beste arrazoiren bategatik.

3.- Deialdi bakoitzean laguntza jasotzeko ezartzen betekizun guztiak betetzeak ez dakar berez eta besterik gabe laguntza eskuratzeko eskubidea.

Deialdi baten babespean dirulaguntza emateak ez dakar berekin Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak hurrengo ekitaldietan antzeko jarduketetarako nahitaez laguntza eman behar izatea.

**Artículo 13.- Gastos a los que afecta la convocatoria.**

El gasto de las cuantías subvencionadas de los proyectos o actuaciones será el realizado en el periodo comprendido entre el día siguiente al de finalización del plazo de la convocatoria del año precedente y el plazo de finalización de presentación de solicitudes del año en curso.

**Artículo 14.- Subsanación de errores.**

1. El Instituto Foral de Bienestar Social comprobará, respecto de las solicitudes formuladas en tiempo y forma, si cumplen todos y cada uno de los requisitos y condiciones exigidas para el otorgamiento de las ayudas, requiriendo, en caso contrario, a quien haya presentado la solicitud para que en el plazo de diez días aporte los datos y la documentación precisa con apercibimiento de que si así no lo hiciere, se le tendrá por desistido de su petición previa resolución, de acuerdo con lo previsto en el artículo 71 de la ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y Procedimiento Administrativo Común en redacción dada por ley 4/1999.

2. Lo dispuesto en el párrafo anterior se entiende sin perjuicio del derecho que corresponde al Instituto Foral de Bienestar Social a solicitar informes de los Organismos que considere oportunos respecto de las subvenciones solicitadas por la persona peticionaria, así como a reclamar de ésta última los datos, documentos o aclaraciones que se estimen precisos para completar el expediente administrativo y comprobar los datos especificados por quien haya presentado la solicitud.

**Artículo 15.- Dictamen técnico.**

Todas las solicitudes que reúnan las condiciones generales así como las especificas para acceder a estas ayudas, deberán ser informadas favorablemente por personal técnico designado al efecto por la Subdirección Técnica del Area de Personas con Discapacidad, con carácter preceptivo y previo a la adopción de la Resolución que proceda, en el que se hará constar:

a) Tipo y grado de discapacidad que presenta la persona susceptible de ser beneficiaria de la ayuda.

b) Necesidad, adecuación y procedencia de la ayuda solicitada en razón de su discapacidad.

c) Procedencia y adecuación del tipo y modelo de ayuda prescrita. En el supuesto que se considere que el tipo de ayuda técnica prescrita no se adecua a las necesidades objetivas de la persona solicitante, se deberá emitir informe en el que se justifique lo que se considere oportuno.

d) Motivo de denegación, en su caso, de la ayuda solicitada.

**Artículo 16.- Instrucción y resolución de la convocatoria.**

1.- Una vez estudiados los informes técnicos realizados de las solicitudes presentada en cada uno de los plazos previstos en la convocatoria, por el Organo colegiado de la subdirección Técnica del Area de Personas con Discapacidad que se determine en la correspondiente convocatoria, se formulará la oportuna propuesta de resolución. Dicha propuesta deberá expresar la totalidad de los importes de subvención a conceder y los motivos de denegación en su caso.

2.- Una vez emitidos los informes técnicos preceptivos, y a la vista de la propuesta de resolución reseñada en el punto anterior, por el órgano competente del Instituto Foral de Bienestar Social se dictarán resoluciones reconociendo o denegando las ayudas solicitadas.

Las resoluciones, que deberán estar suficientemente motivadas, contendrán:

- Las personas beneficiarias a las que se otorga la subvención con las cuantías individualizadas reconocidas, así como las denegaciones debidamente motivadas, y las no concesiones por desistimiento, renuncia al derecho, imposibilidad material sobrevenida de las solicitudes no atendidas o por cualquier otro motivo.

3.- El cumplimiento de todos los requisitos mencionados para las ayudas previstas en las respectivas convocatorias no otorga, por sí sólo, derecho a la adjudicación de las mismas.

La concesión de una subvención al amparo de las convocatorias no comporta obligación alguna por parte del Instituto Foral de Bienestar Social de adjudicar ayudas en los siguientes ejercicios económicos para actuaciones similares.

**17. artikulua.- Eskaerak ebazteko epealdia eta ebazpenak jakinarazteko epealdia.**

1.- Garaiz eta behar bezala aurkeztutako eskaerak, eskatutako agiri guztiak dituztenak, aurkezten diren hileko azken egunetik hiru hilabete pasatu baino lehen ebatzi behar dira.

2.- Ebazpena emateko epealdian berariazko ebazpenik ematen ez bada, eskaera ezetsitzat jo behar da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legeko 44.1 artikuluan xedatutakoaren arabera (4/1999 Legeak finkatutako testua). Hala ere, horrek ez du askatuko ebazpena eman behar izatetik, legez ezarrita baitago.

3.- Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legeko 59. artikuluan xedatutakoaren arabera jakinaraziko zaie eskatzaileei laguntza eman edo ukatu zaiela (Legea urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen).

**18. artikulua.- Laguntza ukatzeko arrazoiak.**

Hauexek dira dirulaguntza ukatzeko arrazoiak:

a) Dirulaguntza emateko ezarritako baldintza orokor edo berezietako bat edo dekretu honetan, urteko deialdian eta antolamendu juridikoan ezarritakoetako bat ez betetzea.

b) Urte bateko deialdian eskaerak aurkezteko ezartzen den epealdiaren aurreko ekitaldian mota bereko laguntza produktu baterako dirulaguntza jaso izana edo berritzeko epealdia amaitu baino lehen beste laguntza bat jasotzea, ezinbesteko kasuetan izan ezik (ezinbestekotasuna frogatu behar da).

c) Urteko deialdiko katalogoan agertzen ez den produktu bat eskuratzeko eskatzea dirulaguntza.

d) Eskaerako edo harekin baterako aurkeztutako dokumentazioko daturen bat egiazkoa ez izatea.

e) Eskatzen den produktua edo zerbitzua ematea, prestazioaren ezaugarriak edo egoitza non dagoen kontuan hartuta, beste herri administrazio baten eskumenekoa izatea.

f) Laguntzak emateko aurrekontuan ezarritako kreditua agortzea.

g) Eskatzaileak ez onartzea Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak eskaintzen dion laguntza produktu berreskuragarria, nahiz eta teknikarien ustez egokia izan eta dekretu honetako 5. artikuluan ezarritakoarekin bat etorri.

**19. artikulua.- Ebazpena aldatzea.**

Dirulaguntza emateko kontuan hartutako inguruabarretako bat aldatzen bada, dirulaguntza emateko ebazpena aldatu ahal izango da eta dirulaguntzaren zati bat itzuli beharko da, eta gauza bera gertatuko da beste erakunde publiko edo pribatu batek xede bererako laguntza edo dirulaguntza bat emanez gero ere. Dirulaguntza bat onartu eta gero hura emateko kontuan hartutako inguruabarretako bat aldatzen bada, ez da beharko berariazko ebazpenik dirulaguntza aldatzeko.

**20. artikulua.- Onuradunen betebeharrak.**

1.- Foru dekretu honen itzalpeko laguntzaren bat jasotzen duenak ondokoak egin beharko ditu:

a) Dirulaguntza ematen duen erakundeari frogatu behar dio dirua beraren kontzepturako erabili duela eta dirulaguntza emateko edo gozatzeko ezarritako baldintzak edo betekizunak betetzen dituela.

b) Dirulaguntza ematen duen erakundearen egiaztapen jarduerak onartu behar ditu, bai eta Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak kontrol ekonomiko eta finantzariorako eta kudeaketarako egiten dituenak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren edo beste erakunde eskudun batzuen legerian xedatutako beste jarduera guztiak ere, eta eskatzen zaizkion agiri guztiak aurkeztu behar ditu.

**Artículo 17.- Plazos de Resolución y notificación.**

1. Todas las solicitudes formuladas en tiempo y forma, y que hubieren aportado toda la documentación precisa deberán resolverse en un plazo máximo de tres meses, contados a partir del último día del mes en que las mismas fueron presentadas.

2. Transcurrido el plazo máximo para resolver, sin que haya recaído resolución expresa, se entenderá que es desestimatoria de la concesión de subvención, de acuerdo con lo previsto en el artículo 44.1 de la LRJ-PAC, en su redacción dada por la Ley 4/1999 sin que ello exima de la obligación legal de resolver.

3. La resolución de concesión o denegación de la ayuda, será notificada a la persona solicitante conforme a lo previsto en el art. 59 de la Ley 30/1992, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, modificada por la Ley 4/1999 de 13 de enero.

**Artículo 18.- Motivos de denegación.**

Serán motivos de denegación de la subvención solicitada los siguientes:

a) El incumplimiento de los requisitos generales y/o específicos exigidos para la concesión de la subvención o de cualesquiera otros requisitos o condiciones establecidos en el presente Decreto, en la convocatoria anual y en el resto del ordenamiento jurídico.

b) Haber recibido subvención para el mismo tipo de producto de apoyo dentro del plazo inmediatamente anterior a la presentación de la solicitud que se señale en la convocatoria anual, o sin que hubiere transcurrido el plazo de renovación establecido para el concepto salvo causa de fuerza mayor debidamente justificada.

c) Haber solicitado subvención para la adquisición de productos de apoyo no recogidos en el catálogo contemplado en la convocatoria anual de ayudas.

d) La comprobación de la existencia de datos que no se ajusten a la realidad, tanto en la solicitud como en la documentación aportada.

e) Que el producto o servicio solicitado corresponda proporcionarlo, por razón de la naturaleza de la prestación o por razón de residencia, a otra Administración Pública.

f) El agotamiento del crédito existente en la consignación presupuestaria correspondiente.

g) El rechazo por parte de la persona solicitante a aceptar el producto de apoyo recuperable que, siendo acorde a sus necesidades de acuerdo con el criterio técnico establecido y de acuerdo a lo estipulado en el artículo 5 de este Decreto, se le hubiera ofertado por parte del Instituto Foral de Bienestar Social.

**Artículo 19.- Modificación de la resolución.**

Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención y, en todo caso, la obtención concurrente de subvenciones o ayudas concedidas por cualquier entidad pública o privada podrá dar lugar a la modificación de la resolución de concesión, así como al reintegro parcial de la misma. Una vez aprobada la subvención, cuando las circunstancias de hecho que motivaron su concesión den lugar a una modificación de la misma, se procederá en consecuencia sin necesidad de dictar resolución al efecto.

**Artículo 20.- Obligaciones de la persona beneficiaria.**

1.- Las personas que se hayan visto beneficiadas por ayudas concedidas al amparo de este Decreto Foral, estarán obligadas a lo siguiente:

a) Acreditar ante la Entidad concedente que el importe reconocido ha sido destinado al pago del concepto subvencionado, así como que ha cumplido con los requisitos o condiciones que determinen la concesión o disfrute de la subvención.

b) Someterse a las actuaciones de comprobación que pueda efectuar la Entidad concedente, a las de control económico – financiero y de gestión que se establezcan por el Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos de la Diputación Foral de Álava, y a las previstas en la legislación del Tribunal de Cuentas u otros órganos competentes, y facilitar cuanta documentación le sea requerida.

c) Espainiako zein nazioarteko administrazioek edo erakunde publiko zein pribatuek xede bererako emandako dirulaguntzen edo laguntzen berri eman behar dio erakunde emaileari, eta dirulaguntza emateko kontuan hartutako inguruabarretan gertatzen diren aldaketen berri ere bai.

d) Onuradunak laguntza produktu baten erabileraren lagapena jaso badu, emateko arrazoia desagertzen denean itzuli eta GOFEk dioen lekuan utzi beharko du; gauza bera egin behar da laguntza produktua emateko ebazpenean berreskuragarria dela ezarri bada ere.

e) Dirulaguntzaren xede izan den edo erabilera laga den laguntza produktua zaindu behar du eta erabiltzeko modua mantendu behar du. Horretarako fabrikatzaileak jarraibideetan azaltzen duen bezala eta foru zerbitzu eskudunak emandako orientazioei jaramon eginez erabili behar du produktua, behar bezala egon dadin beti.

f) Onuradunak laguntza produktu bat erabiltzeko lagapena jaso badu edo zenbateko bat eman bazaio laguntza produktu berreskuragarri bat erosteko, ohiko mantentze lanek eragiten dituzten gastuak ordaindu behar ditu, foru dekretu honetako 7. artikuluan ezarri den bezala.

g) Gizarte Zerbitzuen Sailari eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari baimena eman behar die bere datu pertsonalak eta familia unitateko beste pertsona guztienak helburu hauetarako erabiltzeko datu pertsonalen babesari buruzko legerian ezarri den bezala: estatistikak egiteko, zientzia ikerketarako eta zabalkunderako, eta Gizarte Zerbitzuen Sailaren eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen berezko eginkizunetarako.

h) Araudi honetan, 3/1997 Foru Arauan (otsailaren 7koa, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntza eta Transferentziei buruzkoa) eta 8/2011 Foru Dekretuan (otsailaren 1ekoa, Gizarte Zerbitzuen Sailak eta berari atxikita dagoen Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak norgehiagoka bidez dirulaguntzak emateko prozedura arautzen duten oinarri orokorrak onartu dituena) ezartzen den gainerako guztia egin behar du.

2.- Eskatzaileak edo beraren elkarbizitza unitateko kideren batek (foru dekretu honetako 9. artikuluan zehaztu da nortzuk diren) ezarritako betebeharren bat betetzen ez badu, prestaziorako eskubidea galduko da eta ordaindutako diru kopuruak itzuli beharko dira.

IV. KAPITULUA.- FINANTZAKETA ETA ORDAINKETA.

**21. artikulua.- Dirulaguntzen finantzaketa eta haien zenbatekoak ezartzeko irizpideak.**

1.- Deialdian dirulaguntzetarako gehieneko zenbatekoa ezarriko da eta aurrekontuko zer partidari egotziko zaizkion zehaztuko da.

2.- Aurrekontu ekitaldi bakoitzean ematen diren laguntzen guztirako kopurua ezin da izan aurrekontuan horretarako ezarritakoa baino gehiago.

3.- Norgehiagoka bermatzeko eta eskatzaile guztiek behar duten prestazioa jaso ahal izateko, urte bakoitzeko deialdian banako lehenengo ebazpen bakoitzean emango den laguntzaren ehunekoa zehaztuko da; gainerakoa geroago onartu eta ordainduko da, onartzen diren eskaera guztiei jaramon egin ondoren.

Aparteko kasuetan, eskaera guztien zenbatekoa dirulaguntzetarako ezarritako gehieneko kopurua baino gehiago bada, deialdian eskaeren gaindikina (guztira eskatzen den kopuruaren eta dirulaguntzetarako ezarritako gehieneko kopuruaren arteko diferentziaren ehunekoa) onuradunen artean hainbanatzeko aukera ezarri ahal izango da.

4.- Eskatzaile bakoitzari ezin zaio eman eskatzen duen produktuaren benetako kostua baino gehiago, ez eta kasuan kasuko kontzeptuagatik eman daitekeen gehieneko zenbatekoa baino gehiago ere. Gainera, inolaz ere ez da emango eskatutakoaren baliokide diren produktuen merkatuko batez besteko prezioa baino gehiago.

c) Comunicar a la Entidad concedente, la obtención de subvenciones o ayudas para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o Entidades públicas o privadas, nacionales o internacionales, así como las alteraciones de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención.

d) Devolver y depositar en las dependencias que señale el IFBS aquellas ayudas que se hubieren cedido en régimen de uso o revertir los productos de apoyo que así se hubiera determinado en su momento cuando desaparezca, por cualquier motivo, la causa que originó su concesión.

e) Cuidar y mantener el producto de apoyo subvencionado o cedido en buenas condiciones de uso, utilizándolo conforme a las instrucciones del fabricante y a las orientaciones recibidas del servicio foral correspondiente, cuidando por su correcto estado.

f) En el caso de cesión en uso de ayudas o financiación de productos de apoyo recuperables, hacer frente a los gastos originados por el mantenimiento habitual de las mismas de acuerdo a lo estipulado en el Artículo 7 del presente Decreto Foral.

g) Autorizar al Departamento Servicios Sociales y al Instituto Foral de Bienestar Social para que los datos de carácter personal de la persona solicitante y, en su caso, de las demás personas de la unidad de convivencia, puedan ser utilizados con fines de producción de estadísticas, investigación y divulgación científica y para las funciones propias del Departamento de Servicios Sociales y del Instituto Foral de Bienestar Social, en los términos previstos por la legislación de protección de datos de carácter personal.

